

SASIETA MANKOMUNITATEAREN ZERBITZURA LAN EGITEN DUEN PERTSONALARENTZAKO LANEKO ISTRIPU ETA LANBIDEKO GAIXOTASUNEN MUTUA-ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA.

Esleipena eskuratzen duenak, lehiaketa honetako helburua burutzeko, ondorengo zerbitzuak prestatu beharko ditu:

1. MUTUAREN BETEBEHARRAK.

Aukeratutako Mutuak, Estatuko Gizarte Segurantzaren Institutuarekin elkarlana egingo du Sasieta Mankomunitatearen plantilako zerbitzura lan egiten duen eta Gizarte Segurantzaren Araubidean kotizatzen duen pertsonalaren laneko istripu- eta lanbideko gaixotasun-gaien kudeaketan.

Sanitate-, prebentzio- eta berreskuratze-zerbitzuei dagokienez, Mutuak, gaiaz dauden arauak bete beharko ditu, eta edozein kasutan ere, ondorengo zerbitzuak prestatzeko konpromisoa hartu beharko du:

a) Sanitate-arreta.

- Berehalako arreta eta arreta iraunkorra eskaini egunaren 24 orduetan zehar, jaiegunak barne direla eta zerbitzuaren buru gaitutako pertsonak direla. Halaber, anbulantzien zerbitzu iraunkorra eduki.
- Sasieta Mankomunitatearen esku jartzen diren Mutua beraren Mediku Zentroak eta hitzartutako Mediku Zentroak Mutuak beretan duen partaidetza-adierazlea adieraziz; Errehabilitazio-zerbitzua.
- Mankomunitatearen iritziz beharra duten pertsonen Mutuaren zentroetan arreta berezien eskaintza.
- Egindako zauriaren berehalako informazioa, bere diagnostikoa, tratamendu jarraikia, hurrengo bisitarako zita eta laneko baja-aldiaren jarraipena, aurreikusitako denbora gaindi lezakeen edozein aldagaiez egindako txostenekin.
- Laneko istripuak edota lanbideko gaixotasunak eragindako laneko baja baten izaera edo bidezketasuna epaituko duen mediku-irizpidea.
- Istripuen eta lanbideko gaixotasunen urteroko estatistika, modua, maila, larritasun-adierazlea eta maiztasun-adierazlea zehaztuz.

b) Aurreikuspeneko medikuntza.

- Lehen laguntzetarako botikinak eta beren doako eguneratzea lantokietako bakoitzean.
- Aldez aurretiko, aldizkako eta aparteko mediku-azterketak Mutuaren Zentroetan eta zentro berezituetan. Mankomunitateko langileei urteko mediku-azterketa egiteaz arduratuko den pertsonala gai izango da langile horiekin EAEko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko. Era berean, azterketa bitartean erantzun beharreko galdeketak euskaraz edota euskara eta gaztelaniaz eginak izango dira. Azterketaren ondorioz langile bakoitzari ematen zaion txostena ere euskaraz edota euskara eta gaztelaniaz eginak izango da.
- Azterketa edo miaketako mediku-fitxak, ondorengo atalak izan behar ditu:
 - Data (eguna, hila eta urtea).
 - Pertsonaren datuak eta laneko datuak.
 - Pertsonaren aurrekariak eta ohiturak.
 - Klinika-historia eta azterketa fisiko orokorra.
 - Antropometria-datuak.
 - Elektrokardiograma. Zainetako tentsioa. Pultsua.
 - Espirometria (arnasketa).
 - Ikusmen-kontrola (hurbileko ikusmena, urrutikoa eta ikusmen-eremua).
 - Oftalmoskopia (esanguratsua edo egokia bada).
 - Audiometria (entzumenaren neurketa) (interpretazioa eta galera-balorazioa).
 - Analsiak eta diagnostikoen aipamenak.
 - Erradiologia-azterketa (egokia edo beharrezkoa bada).
 - Ziurtasunezko diagnostikoa egiten lagunduko duten beste azterketa osagarri edo berezitu batzuk.
 - Miaketan edo azterketan antzemandako mediku-analogiak.

c) Segurtasuna eta garbitasuna.

- Enpresaren antolakuntzan eta segurtasunean partaidetza:
 - Istripuen ikerkuntza eta ekiditeko neurriak.
 - Segurtasun-azterketak.
 - Kanpainak.

- Lanpostuen azterketa.
 - Material didaktikoa.
 - Ikastaroak: Oinarrizko Segurtasunaz.
 - Sute-aurkakoak.
 - Sorospeneoak eta lehen laguntzenak.
 - Lanbideko arriskuen eta industria-garbitasunaren osotasunezko azterlanak.
- Enpresak behar izan lezakeen edozein prozesu berri edo teknologiatan aholkularitza eskaintzea.

d) Beste prestazio batzuk.

Proposamena egiten duen Mutuaren iritziz Sasieta Mankomunitatearentzat interesgarriak izan daitezkeen prestazio-mota guztiak.

2. GERTAERA ARRUNTENGATIKO DENBORALDIKO EZGAITASUNA

3. SASIETA MANKOMUNITATEAREN LANEKO ARRISKUEN AURREIKUSPEN-ZERBITZUA.

a. Helburua.

Segurtasuna eta osasuna babesteko lanbideko arriskuen aurreikuspena, lanetik ondorioztatutako arriskuak desagertzea edo gutxitzea eta aurreikuspen-gaietan informazioa, kontsulta, partaidetza orekatua eta langileen prestakuntza, azaroaren 8ko 31/1995 Laneko Arriskuen Aurreikuspen Legean, (hemendik aurrera LSAA) adierazitako terminoetan, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta.

b. Aplikazio-esparrua.

Laneko arriskuen aurreikuspen-zerbitzua, Sasieta Mankomunitateko pertsonal guztiari aplikagarri izango zaio, bere lan-harremana, lan-hitzarmeneko edo estatutuetakoa, finkoa edo denboraldikoa, etab., izanik ere.

Sasieta Mankomunitateko plantila 7 langilez osatuta dago.

Aurreikuspen-jarduneko printzipioak:

- Arriskuak ekidin.
- Ekidin-ezinak diren arriskuak neurtu.
- Arriskuei sorreran bertan aurre egin.
- Lana pertsonari egokitu, lanpostuen izaera-kontzeptuari dagokionean batez ere eta baita laneko eta ekoizpeneko ekipoen eta metodoen hautaketari dagokionean ere, batez ere lan errepikakor eta beti berdina arintzeko eta horrek osasunean dituen eraginak murrizteko.
- Tekniken bilakaera kontuan hartu.
- Arriskutsua dena arriskurik ez duenaz edo gutxi duenaz ordezkatu.
- Aurreikuspena planifikatu, bertan, teknika, lanaren antolakuntza, laneko baldintzak, gizarte-harremanak eta laneko ingurumeneko faktoreen eragina bere barne sartuz.
- Taldeen babesa norbanakoarenarekiko lehenesten duten neurriak onartu.
- Langileei beharrezkoak diren argibideak eman. Horiek ematean, euskararen erabilera bermatuko da.

Aurreikuspenezko neurrien eraginkortasunak, langileek izan ditzaketen zabarkeriak edo beldurgarriak ez diren ausarkeriak aurreikusi behar ditu. Neurri horiek hartzeko, aurreikuspenezko neurri jakin batzuek berekin izan ditzaketen arrisku gehigarriak hartu beharko dira kontuan, eta arrisku horien neurria, kontrolatu nahi direnena baino nabarmenkiro txikiagoa denean eta beste aukera seguruagorik ez dagoenean bakarrik onartu ahal izango dira.

- c. **Laneko arriskuen aurreikuspenaren plana, arriskuen ebaluazioa eta aurreikuspen-jardueraren planifikazioa.** (Bateratua eta eguneratua dagoen Laneko Arriskuen Aurreikuspenarako azaroaren 8ko 31/1995 zk.dun Legearen testuko 16. artikuluan zehazten den arabera eta lege honi 54/2003 Legeak egiten dizkion aldaketak kontuan hartuta).

d. Langileen prestakuntza.

Babestu-beharra betetzeko, aurreikuspen-gaietan, langile bakoitzak behar adinako prestakuntza teoriko eta praktiko egokia jasoko duela bermatu beharko da, bai bera kontratatzeke unean, kontratazio-mota edota kontratu-iraupena edozein izanda ere, eta baita betetzen dituen zereginetan aldaketak gertatzen direnean edota teknologia berriak sartzen direnean edota lan-tresnetan aldaketak gauzatzen direnean ere. Aipatutako prestakuntza ematean, ahoz zein idatziz, euskararen erabilera bermatuko da (apunteak, liburuxkak, eskuliburuak, etab.).

Prestakuntza zehatz-mehatz langile bakoitzaren lanpostuan edota eginkizunetan bildu beharko du, arriskuen bilakaerari eta berriak agertzeari egokitu beharko zaio eta aldizka errepikatu egin beharko da beharrezkoa izanez gero.

Aurreko atalean aipatzen den prestakuntza hori, ahal den guztietan, lanaldiaren barruan eman beharko da.

e. Aurreikuspen-zerbitzuaren baliabide materialak eta giza baliabideak.

Edozein kasutan ere, gutxienez bederen, ondorengo baliabideak izan beharko ditu:

- a) Aurreikuspen Zerbitzuen Araudia onetsia duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren VI. kapituluan ezarritakoaren arabera, goi-mailako eginkizunak burutzeko behar adinako prestakuntza duen pertsonala, gutxienez ere, Laneko Medikuntza, Laneko Segurtasun, Industria Garbitasun eta Ergonomia eta Psiko-soziologia aplikatuko adar berezituetakoko bakoitzeko aditu bana. Era berean, aipatutako Errege Dekretuaren VI. kapituluan aurreikusitako oinarrizko eta tarteko mailetan eginkizun horiek garatzeko behar adina gaitasun duen pertsonala ere izan beharko da, Sasieta Mankomunitateak dituen ezaugarrien arabera.

Aipatutako alor berezitetan adituak direnek, modu koordinatuan jardungo dute eta bereziki ondorengo atal hauetan jardun ere: lanpostuen aurreikuspeneko diseinuari dagokion eginkizunen arloan, arriskuen identifikazio eta ebaluazioarenean, aurreikuspen-planen ildoan eta langileen prestakuntza-planen atalean.

Arlo honetan prestakuntza ematen duen pertsonalak EAEko bi hizkuntza ofizialetan emateko prestatuta egon beharko du.

- b) Probak, azterketak eta miaketak, neurketak, analisiak eta aipatutako berezitasunen arloan ohikoak diren ebaluazioak egiteko nahiz prestakuntza-jardueretarako eta oinarrizko zabalkunderako beharrezkoak diren instalazioak eta tresneria.

f. Aurreikuspen-zerbitzuaren eginkizunak.

Aurreikuspen-zerbitzu moduan jardungo duten erakunde berezituak, zuzen-zuzenean beren gain hartu beharko dute ondoren adierazten diren eginkizunen garapena, baina beti ere Sasieta Mankomunitatearen jardueren osotasunean eta bere hierarkia-maila guztietan aurreikuspenaren zantzua sartu beharra dagoela kontuan hartuta. Hori ez da oztopo izango halere, jarduerak burutzeko ezagutza bereziak edo konplexutasun handiko instalazioak behar direnean zerbitzuak beste profesional edo erakunde batzuei azpikontratatzeko.

- Aurreikuspen-jarduneko planak eta egitarauak diseinatu, aplikatu eta koordinatzea.

- Bai plegu honetan, bai Laneko Arriskuen Aurreikuspenenerako Legeko 16. artikuluan aurreikusitako neurrian langileen segurtasuna eta osasuna erasan ditzaketen arrisku-faktoreen ebaluazioa.

- Aurreikuspen-neurri egokiak hartzeko lehentasunak zehaztea eta beren eraginkortasuna zaintzea.

- Langileen informazioa eta prestakuntza.

- Lehen laguntzen eta larrialdietarako planen prestakuntza.

- Lanaren ondoriozko arriskuekiko langileei egin beharreko osasun-zaintza.

g. Kualifikazio-eginkizunak eta mailak.

Aurreikuspen-zerbitzuak, Aurreikuspen Zerbitzuen Araudia onetsia duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluaren ezarritako eginkizunak bete beharko ditu eta eginkizun horiek garatzeko beharrezkoa den kualifikazioa edo prestakuntza egiaztatu.

Kualifikazio-irizpideak, aipatutako 39/1997 Errege Dekretuko kapitulu berean zehaztutakoak izango dira.

h. Osagarritasuna.

Arlo teknikoan Plegu honetan aurreikusi gabeko gai guztietarako, laneko arriskuen aurreikuspenarako aplikagarri den legerian xedatutakoa hartuko da kontuan, eta batez ere ondorengo hauek:

- Laneko Arriskuen Aurreikuspenarako azaroaren 8ko 31/1995 Legea, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta.
- Aurreikuspen Zerbitzuen Araudia onetsia duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua.
- 39/1997 ED garatzen duen 1997ko ekainaren 27ko Ministerio Agindua, ondorengo arlo hauei dagozkienetan: enpresez kanpoko aurreikuspen-zerbitzuen moduko erakunde berezituaren egiaztapen-baldintzen arloan, enpresen aurreikuspen-sistemaren auditoria-jarduera garatu nahi duten pertsona edo erakunde berezituaren baimen-arloan eta garapenerako nahiz ziurtagiriak emateko (ziurtatzeko) herri-erakundeei zein erakunde pribatuei baimena ematearen arloan.

2004ko maiatzaren 5eko Lehendakariaren ebazpenez onetsia.

Idazkaria,